

OHIKO GALDERAK ETA ERANTZUNAK 2017KO GEHIGARRIZKO OSAGARRIEN DEIALDIAN LAGUNTZEKO

2018ko irailan



San Prudencio, 8
01005 Vitoria-Gasteiz
Tfno.: (+34) 945 123 356

1.- NORK EGITEN DU DEIALDIA?

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluari dagokio deialdia egitea, Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren proposamenez. Unibasq-ek ez du deialdia argitaratzen ezta osagarriak esleitzen ere. Unibasq-ek eskaeren ebaluazioak Ebaluazio Batzordeen bitartez egiten ditu.

2.- NORK PRESTATZEN DITU PROTOKOLOA ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK?

Unibasq-eko Aholku Batzordeak egiten du, bere Gobernu Kontseiluarekiko organo independentea dena. Unibasq-eko 13/2012 Legearen 9.artikuluari aipatzen denez, Aholku Batzordeak agentziaren jardueren kalitatea eta sinesgarritasuna bermatu behar ditu, eta bere eskumenen artean protokoloak eta ebaluazio irizpideak onartzea dago.

3.- NOR AURKEZTU AHAL DA DEIALDIRA?

UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileak, bai funtzionarioak baita administrazio kontratua edo lan kontratua dutenak ere, baldin eta hurrengo egoeretan aurkitzen ez badira:

-Aurreko deialdietan ebaluatuak izan direnak, azken ebaluaziotik bost urte igaro ez badira, 2017ko abenduaren 4ra arte, B1 mailarako ebaluazioa eskatu nahi badute salbu.

-Agentziarekin elkarlanean diharduten irakasleak eta ikertzaileak, UPV/EHU-ko irakasleen eta ikertzaileen gehigarriko ordainsari osagarriari buruzko urriaren 17ko 2006/209 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak kanpoan utzitakoak, martxoaren 29ko 2011/64 Dekretuaren bidez aldatuta.

-Martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuak kanpoan utzitakoak (41/2008 Dekretua, UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen ordainsariei buruzkoa), hau da, irakasle emerituak, irakasle bisitariak, eta UPV/EHUko formakuntzan dauden ikertzaileak.

Ikerbasqueko ikertzaileak ezin dira ebaluatu.

4.- OSAGARRIEN C TARTEAREN EBALUAZIOAK ESKATU AHAL DIRA?

EZ. C tarreak 2018ko maiatzean ebaluatu ziren. A, B eta T mailen tarreak bakarrik ebaluatuko dira.

5.- NORTZUK JASO DEZAKETE XEDAPEN IRAGANKORRARI JARRAIKI EGINDAKO EBALUAZIOA?

Baliogabetu zen 2017ko deialdian bere eskaera formalki egin zuten pertsonen bakarrik.

6.- NORTZUK JASO DEZAKETE PROTOKOLOAREN VII. ATALAN DAUDEN IRIZPIDEEI JARRAIKI EGINDAKO EBALUAZIOA?

-Baliogabetu zen 2017ko deialdira aurkeztu ez zirenak.

-Nahiz eta baliogabetu zen 2017ko deialdian aurkeztu, protokoloaren VII. atalari jarraiki ebaluatuak izatea nahiago dutenak.

7.- NOLA BETE BEHAR DUT ESKAERA?

Sortu den aplikazio informatikoaren bitartez. Bertan aipatzen diren pausuak jarraituz. Paperean aurkezten diren eskaerak ez dira ebaluatuko.

8.- ESKAERAN SARTUTAKO MERITU GUZTIAK JUSTIFIKATU BEHAR DIRA?

Bai, eskaeran sartutako meritu guztiak justifikatu behar dira, publikazioak izan ezik. Publikazioetan nahikoa izango da bere kokalekua topatzeko laguntzen duten datuak eta bere kalitate-zantzuak adieraztea (DOI, IBBN). Kasu hauetan ISBNa edo ISSN aipatzea aski izango litzateke.

9.- NOLA JUSTIFIKATU BEHAR DITUT XEDAPEN IRAGANKORRARI JARRAIKI EBALUATUAK IZATEA NAHI DITUDAN MERITUAK?

Xedapen Iragankorrari jarraiki ebaluatuak izatea aukeratzen duten pertsonen, merituak ataletan banatu beharko dituzte: irakaskuntza, ikerketa eta ezagutzaren transferentzia eta kudeaketa. Aplikaziora pdf fitxategi bat igo beharko da hiru atal bakoitzeko, non meritu guztiak justifikatuko diren. Hau da, fitxategi bat Irakaskuntzarako, beste bat Ikerketa eta Ezagutzaren Transferentziarako eta beste bat Kudeaketarako.

“A” mailako eskatzaileek, fitxategi gehigarri bat igo beharko dute, non A1 eta A2 tartean lortzeko eskatzen diren ez ohiko merituak justifikatu behar dituzten.

Gainera, fitxategi gehigarri bat igo behar da, aurreko dokumentazioaren aurkibide batekin, jarritako ordena adieraziz.

Eskatzaileek bere aurreko eskaeran adierazi zituzten merezimenduak berrikusteko aukera izango dute eta hauekin ados badaude, eskaera zuzenean baieztatu dezakete ebaluazio prozesua jaso dezaten.

10.- NOLA JUSTIFIKATU BEHAR DITUT PROTOKOLOAREN VII. ATALARI JARRAIKI EBALUATUAK IZATEA NAHI DITUDAN MERITUAK?

Protokoloaren VII. atalari jarraiki ebaluatuak izatea aukeratzen duten pertsonak, lau atal bakoitzeko pdf fitxategi bana igo beharko dute aplikazio informatikora, non meritu guztiak justifikatuko diren. Hau da, ikerketa, ezagutzaren transferentzia eta dibulgazio zientifikoa, irakaskuntza eta kudeaketa ataletan egiaztagiri bana erantsiko dira. Atal nagusien kopurua eskatzaile bakoitzak dituen bost urteko bloke bakoitzeko biderkatzen da. Hori dela eta fitxategien bidez egindako merezimenduen justifikazioa ebaluatzeko urteen arabera izango da.

11.- BOST URTEKO BLOKE BATEN EBALUAZIOA ESKATU NAHI BADUT, ETA GAINERA EBALUATUAK IZATEA NAHI DITUDAN BESTE BI URTE BALDIN BADITUT, ZER GERTATZEN DA BI URTE HAUEKIN?

Bost urteko blokean sartzen ez diren gainontzeko urteak eta hilabeteak ere ebaluatuak izango dira. Aplikazio informatikoak erlantz batean adierazteko aukera emango du. Epea hiru hilabetekoa edo gutxiagokoa bada azkeneko blokean sartuko da. Hiru hilabete baino gehiagokoa bada, hau adierazteko bloke berri bat sortuko da.

12.- MEREZIMENDUAK GEHITZEKO MUGARIK AL DAGO?

Xedapen Iragankorrari jarraiki ebaluatuak izatea aukeratzen duten pertsonak ez dute atalen arabera ezta azpiatalen arabera mugarik izango. Hala eta guztiz ere, Protokoloak jasotzen duen bezala, azpiatal batzuetan merezimenduen gehienezko kopurua gomendatzen da.

Protokoloaren VII. atalari jarraiki ebaluatuak izatea aukeratzen duten pertsonak, Protokoloan adierazitakoaren arabera azpiatal batzuetan merezimendu kopuruaren gehienezko mugak izango dituzte. (Adibidez: 2.1.3 atalean).

13.- ZEIN DA BOST URTEKO BLOKE BAKOITZEKO LORTU DEZAKEDAN GEHIENEZKO PUNTUAZIOA?

Bost urteko bloke bakoitzeko lortu dezakezun puntuaziorik altuena 27 puntu dira. Protokoloan adierazten diren irizpide berrien ezarpena dela eta, ebaluazioan lortutako puntuazioari ez zaio inolako formularik eragingo.

Azalpena argitzeko adibide praktiko bat: ebaluazioa jasotzeko eta ondorengo ordainsari osagarriak esleitzeko aurreko deialdian 34 puntu lortu bazenitu (B1) eta aurtengoan 17 puntu lortzen badituzu, azkeneko puntuazioa 51 izango lirateke. Puntuazio horrek (51) B2 tartearen baiezko ebaluazioa jasotzea suposatuko luke.

14.-A MAILAKO TARTEAK ESKATU NAHI DITUT. ZER EGIN BEHAR DUT?

Aplikazio informatikoan tarreak markatu, erantsi merituen ziurtagiriak, baita formatu askeko CV labur bat. CV honek Ebaluazio Batzordeen kideentzako lagungarria izango da eskatzailearen ibilbidea testuinguru batean kokatzeko.

15.- NORK EGIAZTATZEN DITU EBALUAZIOA EGITEKO BEHARREZKO BETEKIZUN LEGALAK?

Antzinatasuna, doktoregoaren betekizuna osagarrien tarte bakoitzerako eta eskaeraren alderdi legalak UPV/EHUK egiaztatzen ditu. Unibasq-ek bakarrik ebaluatuko ditu UPV/EHUren ustez era zuzenean aurkeztu diren eskaerak.

16.- ARAZOAK DITUT APLIKAZIO INFORMATIKOAREKIN. NOREKIN JARRI BEHAR NAIZ HARREMANETAN?

Deialdi honetan erabiltzen den aplikazio informatikoa UPV/EHU eta UNIBASQ-en *artean kudeatzen da*.

Betekizun legal, formalekin, etab. harremana duten zalantzak UPV/EHURA zuzendu behar dira. Horretarako, bidali zalantzak: complementos.pdi@ehu.es

Ebaluazioarekin, merituekin, etab. harremana duten zalantzak UNIBASQ-ERA zuzendu behar dira. Horretarako bidali zalantzak: osagarriak@unibasq.org

17.- TASA BAT ORDAINDAINDU BEHAR DUT EBALUAZIOREN ESKAERA EGITEKO? NOLA JUSTIFIKATZEN DUT TASAREN ORDAINKETA?

Bai, Euskal Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio publikoei (1/2007 Dekretu Legislatiboa, 5/2017 Euskal Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legea dela eta aldatuta) buruzko Legea dela eta, 46.60 euroko tasa bat ezartzen da UNIBASQ-en alde, 2095 0611 0091 1588 6475 IBAN kontu korrontean, ebaluazio eskubideen delakoa A, B edo Unibertsitate Eskolako doktore ez den irakasle titularrentzako osagarriak eskatu dituztenentzako. Tasa ordaindua izan den egiaztagiria aurkeztu behar da, aplikazio informatikoan agertzen diren argibideak jarraituz.

18.- DAGOENEKO BALIOGABETU ZEN DEIALDIARI ZEGOKION ESKAERA BETE ETA TASA ORDAINDU BANUEN, BERRIRO ORDAINDU BEHAR DUT?

Baliogabetu zen aurreko deialdian ezarritako 45.91 euroko tasa ordaindu bazenuen, 46.60 euroko tasa bete harte dagoen diferentzia bakarrik ordaindu beharko duzu. Hau da, 0.69€.